

OSPETSUEN HELBURUAK

Deskribapena: Oinatz Bengoetxea pilotaria ageri da frontoian.

Oinatz: “Bueno hitz egiten eondu gea, ta esan du, ba, bi mila eta hamalagarrenen, ba, aldageletan, ba, euskeraz gehio hitz egin beharra dula ta bueno, euskeraz ez dakinak pixka bat ikasteko eta gure arten, ba, euskal giro hobegoa izateko, ez?”

Deskribapena: Zuhaitz Gurrutxaga aurkezlea ageri da kalean oraingoan.

Zuhaitz: “Jende askok esan ohi du, eta nik ere inoiz esan dut, euskaraz umorea egitea zaila dela, eta nire bi mila eta hamalaurako asmoa litzateke topiko hori irauli eta euskeraz umorea fintzea.”

Deskribapena: Garbiñe Biurrun epailea kalean agertzen da orain.

Garbiñe: “Ba nik bi mila eta hamalagarren urteari eskatzen diot hain zuzen ere auziak, batzuk sikiera, euskeraz egin ahal izatea, eta herritarrok gure eskaerak, gure argudioak eta gure arrazoiak, euskeraz adierazi ahal izatea epaimahaiari.”

Deskribapena: Eli Pinedo eskubaloi jokalaria ageri da gabonetako zuhaitzaren aurrean.

Eli: “Nere konpromezua bi mila eta hamalagarren urterako, euskara nere bizitzaren esparru guztietara zabaltzea da, euskara mundiala da.”

Deskribapena: Errenteriako kaleetan Kike ageri da oraingo honetan.

Kike: “Normalean gabonetako zuhaitza argi koloretsuz betetzen dugu edo hare koloretsuagoak diren espumiloiz ere. Baina gaur, gure zuhaitza, euskeraren inguruko asmo berriz josiko dugu.”

Deskribapena: Pertsona desberdinak ageri dira borobil edota izar formako kartulinetan asmoak idazten eta gabonetako zuhaitzan zintzilikatzen, Kikeri idatzitakoa komentatzen dioten bitartean.

Lehenengo emakumezkoa: “Marrazki bizidunak euskaraz ikusiko ditut seme-alabekin.”

Bigarren emakumezkoa: “Whatsapp idatzi euskaraz.”

Hirugarren emakumezkoa: “Nire asmoa nire alabarekin euskeraz hitz egiten hasiko naiz.”

Laugarren emakumezkoa: “Nire bikotearekin euskaraz hitz egiten hasiko naiz.”

Lehenengo gizonezkoa: “Nire euskera hobetzeko datorren urtean barnetegira joango naiz.”

Bigarren gizonezkoa: “Sagardotegian euskaraz hitz egingo dut.”

Hirugarren gizonezkoa: “Ba adibidez, ni Gasteiza joaten naizenian, ohiturie daukot erderaz hitz egiteko eta ba, hurrengo urtera begira, ba, hasiko naiz, ba, euskeraz hitz egiten.”

Bosgarren emakumezkoa: “Ezagutzen ez ditudan pertsonekin ere nere lehenengo hitza euskeraz izatea.”

Seigarren emakumezkoa: “Euskaraz dakiten nere lagunekin hitz egingo dut.”

Zazpigarren emakumezkoa: “Mintzalagunarekin hitz egingo dut.”

Kike: “Mintzalagunarekin.”

Deskribapena: Toti Martinez de Lezea idazlea ageri da imajinan.

Toti: “Euskaldun berri zaharra naiz; ondo ulertzen dut, nahiko ondo irakurtzen dut. Orain dela berrogei urte hasi nintzen euskeraz ikasten baina, ai aditzak, ai nork-nori-nor.. Problema handia dut eta nire proposamena urte berrirako da nork-nori-nor eta aditzak menperatzea.”

Deskribapena: Abel Barriola pilotaria frontoian ageri da.

Abel: “Euskararekiko bi mila hamalagarren urte honetarako, Juan Martinez de Irujorekin euskeraz lehen ongi egiten du, baino nere asmoa da, urte honetan ja ke ta bikote garen gainera, berarekin gehiagotan hitz egitea euskaraz eta pixka bat bortxatzea euskaraz hitz egitera.”

Deskribapena: Asier Odriozola aurkezlea telebistako bulegoetan ageri da.

Asier: “Usurbildar batek, Artzek oso garbi esan zuen euskera galtzen baldin bada dakigunok erabiltzen ez dugulako izango dela eta hori gertatu ez dadin hitz ematen dut nik, eta ahal dudan neurrian nere ingurukoek ere, bi mila eta hamalauan gehiago erabiliko dugula euskera, hitza ematen dut eta gainera bete egingo dut.”

Deskribapena: Iker eta Eneko Pou anai eskalatzailleak gabonetako zuhaitz baten aurrean ageri dira.

Iker: “Bueno, bi mila eta hamalaurako asmoa, ba bueno, gure artean haber gehio bueno mintzatzen garen euskeraz, ez?”

Eneko: “Bai, egiten dugu nahikotxo baino ikusten da gehio behar degula. Ingles asko, gaztelera baita ere asko, alemanez, ez? Italiarrez...”

Iker: “Bai, ta nik uste dut euskaraz gehio in behar dela”

Eneko: “Saiatuko gara haber euskaraz guztia egiten dugun, edo ia guztia!”

Deskribapena: Jose Javier Zabaleta pilotaria frontoian ageri da jarrain.

Jose Javier: “Aupa! Bi mila eta hamalaurako saiatuko naiz euskeraz hitz egiten, beldurrik gabe.”

Deskribapena: Franck Dolosor kazetaria ageri da kalean orain.

Franck: “Bi mila eta hamalauetan ere euskara bizitzen eta sustatzen segituko dugu, idazten hasi dudan liburua bururatzea hitz ematen dut Senperen gaindi gure herritarrak eta eskuara, lapurtera hobeki ezagutzeko, ongi izan!”

Deskribapena: Josebe Iturriotz berdintasun teknikaria ageri da kalean jarraian.

Josebe: “Ba nire erronka bi mila eta hamalauerako euskarari begira izango da euskera nere bizitzaren zentroan sartzea, beraz, sexualitatean txertatu nahi dut, hau da, txortan egin nahi dut euskeraz gehiago eta hobeto.”

Deskribapena: Alberto Iñurrategi mendizalea ageri da oraingo honetan.

Alberto: “Ez naiz irakurle amorratua eta gainera euskeraz ez dot leiruten nahi beste eta horixe izango da datorren urterako asmua, euskaraz, orain arte baino gehiago leirutia.”